

ASTEAZKENA

2021/04/21

9. urtea, 1.404. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Alokairua sustatzeko laguntzak emango ditu Tolosako Udalak

Alokairua ordaintzen laguntzeko lerroa ireki du, eta etxebizitza hutsak birgaitzeko diru laguntza osatuko du; Euskal Herria plazako etxebizitzetan izena emateko aukera dago // 2

Ura baserrietara eramateko proiektua egingo dute Orendainen

292.216 euroko aurrekontua onartu dute Orendainen 2021erako; kultur etxeko teilatuaren obrekin hasi dira, eta bi hilabete beharko dituzte lan guztiak amaitzeko // 5

«Baikora ez noa soilik alor ekonomikoagatik»

ERIK JAKA
PILOTARIA

Larunbatean jokatuko du pilotari lizartzarrak Asperekin azken partida; bertakoez irudi ona daramala eta beraiei utzi diena ere ona dela dio // 7



TOLOSA

NATURAZ HAUSNARTZEKO

Natura eta Ingurumen Zinemaren I. Erakustaldia ari dira egiten Gipuzkoan, foru aldundiak antolatuta, «herritarrak naturarekiko harremanetan sendotzeko»; Leidorren egingo dute amaiera ekitaldia, 'Natura Bizia' dokumentalarekin // 4




euskaltel

**ZATOZ EUSKALTELERA
HILAREN 30A BAINO LEHEN
ETA ESKURATU REALAREN
KAMISETA OFIZIALA**

Zain gaituzu **Tolosako eta Beasaingo** gure dendetan.
Ez zaitez gabe geratu...

Gazteen eta behar bereziak dituztenen alokairua sustatzeko

Tolosako Udalak etxebizitza aukera berriak sortzeko laguntza eta deialdi berriak abiarazi ditu; Euskal Herria plazako etxebizitzetan izena eman daiteke jada

Erredakzioa Tolosa

Alokairua sustatzeko eta etxebizitza aukera berriak sortzeko diru laguntzak emango ditu Tolosako Udalak. Horretarako, alokairua ordaintzen laguntzeko lerroa ireki dutela eta etxebizitza hutsak birgaitzeko diru laguntza osatuko dutela esan du Xabier Balerdi Etxebizitza saileko zinegotzi arduradunak. «Alokairuaren aldeko gure apustua garbia eta irmoa da; horregatik, aurren, alokairua sustatzeko eta gazteen emantzipazioa errazteko neurri zehatzak hartuko ditugu, jada martxan genituen laguntzak eta programak egokituz edota ekimen berriak abiaraziz, etxebizitza hutsen azterketak agerian utzi dituen beharrei erantzuteko», gaineratu du. Horiek horrela, informazio kanpaina bat egingo du udalak udazkenean eta Euskal Herria plazako gazteentzako bisitokien eta Agaramunduko babes ofizialeko etxebizitza deialdi berriak egingo ditu, «hutsik dauden bisitokiak betetzeko».

Balerdik azaldu du etxebizitza hutsen inguruko azterketaren arabera, herrian hutsik dauden 253 etxebizitzetatik gehienak Alde Zaharrea kokatuta daudela eta askok dutela birgaitzeko beharra bizigarritasun baldintzak bete ditzaten.

Babestutako etxebizitza eskatzaileen profilari dagokionez esan du, gehienak gazteak direla. Gauzak horrela, administrari



Jada eman daiteke izena Euskal Herria plazako etxebizitzetan. ATARIA

bat ere kontratatu dute, tramiteak egiten laguntzeko.

EUSKAL HERRIA PLAZA

Aurreko itxaron zerrenda agortuta, hutsik dauden etxebizitzak betetzeko deialdi berria martxan jarri zuen udalak, astelehenean. Maiatzaren 14ra arte egin ahalko da eskaera eta udaletxean bertan edota era telematikoan egin ahalko da. 19 etxebizitza esleitzeko zozketa egingo dute deialdi berriarekin eta itxaron zerrenda osatuko dute, kontratuak amaitzean libre geratzen diren etxebizitzak itxaron zerrendaren bitartez betetzeko. Gehienez ere 3 urteko iraupena izango dute kontratuek.

Euskal Herria plazako eraikinean, tipologia ezberdineko 25 etxebizitza daude guztira, 3 solairutan banatuta. Lehenengo solairuan, bisitoki batzuei erantsitako 12 trasteleku daude. Espazio amankomunak ere badira, hala nola, terraza eta garbigai-

luen gela. Udalak etxebizitza bat erreserbatuko du mugikortasun urri-iraunkorra duten gazteentzat. Horrez gain, beren kargura adingabeak edo adinekoak dituztenentzat bi logeletako bisitokia gordeko dute, eta beste egoera batzuetan dauden kolektiboentzat (indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak, ezintasun psikikoa duten pertsonak...), berriz, babes bereziko bisitoki gordeko dituzte. Horientzat gordetako apartamenduak hutsik geratuko balira, baldintzak betetzen dituzten beste eskatzaileen artean zozkatuko dituzte.

AGARAMUNDU

Bestalde, Agaramunduko Babes Ofizialeko etxebizitzak 70 urteko gorako herritarrei, gizarte egoera zehaztuta dauden edo mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonari bideratuak daude. Guztira 25 etxebizitza daude eraikinean eta maiatzean egingo

den deialdi berriarekin, hutsik dauden 6 etxebizitza beteko dira eta itxaron zerrenda osatu. Deialdiaren oinarrietan aldaketa bat egin da, gainera. Baldintzak betetzen dituzten eskatzaileek etxebizitza jabetzan badute Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren esku utzi beharko dute alokairura bideratzeko. Modu honetara, herriko alokairu eskaintza handitu nahi da.

ALOKAIRU ORDAINKETA

Diru laguntza berri honen bitartez, laguntza eskainiko diete etxebizitzarik jabetzan ez duten eta alokairuan bizi diren herritarrei. Zehazki, 18-35 urte bitarteko gazteei edota behar bereziak dituzten herritar eta familiei zuzenduta dago laguntza lerroa.

Alokaturako etxebizitzak Tolosan kokatuta egon beharko du, diru sarrerak kontuan izango dira laguntzak ematerakoan eta horren arabera, laguntzak urte beteko iraupena izango du eta hilean gehienez ere 250 euroko laguntza emango da. Udalak 40.000 euro bideratuko ditu, baina eskarien arabera diru gehiago jarriko dute.

ETXEBIZITZA HUTSAK

Orain artean, udalak etxebizitza hutsak birgaitzeko laguntzak eman ditu, horiek alokairuan jar zitezten. Udalak hitzarmena sinatuko du Alokabide eta Etxebiderek eta etxebizitza hutsen jabeak Bizigune programara atxiki beharko dira.

GUTUNA

Bizikleta aparkalekuak

Orain gutxi jarri dute bizikletentzako aparkaleku berria musika eskolarekin atzealdean, estalki eta guzti, Tolosako udal gobernuak jakitera eman duen moduan. Estalki motaren eraginkortasun zalantzak alde batera utzita, pozten gara bizikletaren erabilera sustatzeko aldera horrelako azpiegiturak ezartzeaz. Dena dela, Tolosan bizikletak aparkatzeko toki eskasia oraindik agerikoa eta larria da, eta ez da arlo honetan dugun gabezia bakarra. Arazo hauei irtenbide zabalago bat ematea premiazkoa da.

Tolosako EH Bilduko udal taldeak 2019ko azaroan udal gobernuari luzatu genion akordiorako proposamenaren barruan mugikortasunaren paradigma aldaketaren beharra azpimarratu genuen eta bide horretan hainbat neurri proposatu genituen.

Ezinbesteko ikusten dugu Tolosako bidegorri sarea birpentsatzea dituen gabeziak deuseztatzeke, hauek jartzea zail ikusten den tokietan ibilbideak zehaztea, lehenetasunak finkatzea eta bizikleta, patin elektriko eta abarren erabilera arautzea, hauen erabilera egokia sustatuz kaleko bizikidetzak bermatzeko. Errepideetan bizikletari lehenetasuna eman behar zaio herrigune osoan. Era berean, bizikletak konpontzeko puntuak jarri behar dira, eta aparkaleku falta gaitzeko, utzitako bizikleta kopuru izugarria kendu, aparkaleku gehiago jarri eta, dauden lokal huts kopuru handia ikusita, batzuk eskuratu eta bizikletak gordetzeko egokitu. Neurri guztiz egingarriak eta ekonomikoki bideragarriak.

Arazoak konpontzeko moduak ere aldatu behar ditu udal gobernuak, eta hainbestetan ahotan darabilen gobernantza eredu berria benetan aplikatu. Ez da onargarria esaterako, Alde Zaharrea dagoen aparkaleku falta dela eta Berdura plazan pilatzen ziren bizikleta guztiak dekretu bidez 24 orduan erretiratzeko agintzea, irtenbiderik eman gabe. 2020ko azaroaren 10ean izan zen hori, eta orain gutxi arte itxaron behar izan dute bizilagunek aparkaleku gutxi batzuk gehiago eskura izateko, gutxiegi nolana ere. Tolosako EH Bildutik elkarlanerako presuntasuna dugu beste behin, benetako mugikortasun jasagarriaren inbertitzeko eta Tolosa osasuntsu eta atseginagoa lortzeko.

Ander Figuerido Zubiria

Tolosako EH Bilduko zinegotzia

32

POSITIBO BERRI

Osasun sailak emandako datuen arabera, 12.301 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik 779 positiboak izan ziren, Gipuzkoan 375, tartean, 32 Tolosaldean; Tolosan 12, Anoetan eta Ibarra launa, Elduainen, Iruran eta Amasa-Villabonan bina eta Alegian, Berastegin, Bidania-Goiatzen, Hernialden, Larraulen eta Lizartzan positibo bana.

Iritsi da eskualdeko elkartasuna Saharara

TOLOSALDEA // Tolosaldea Sahararekin elkarrekin laguntza eskatu zuen Aljerian janaria eta bestelako produktuak erosi eta saharar familien artean banatzeko. 45 egun iraun ditu kanpainak eta 4.469 euro bildu dituzte. Saharako Ilargi Gorri Erdiak jaso du jada dirua eta beraiek bideratuko dute laguntza saharar errefuxiatu kanpalekuan.

Artxinboldoren lagunak erakusketa batean bilduta

ZIZURKIL // Motxila ibiltaria egitasmoari lotuta gazteek Giuseppe Arcimboldo Errenazimentu garaiko margolari italiarraren adibideari jarraitu behar izan diote eta barazki zein frutekin ipuinetako pertsonaien erretratuak osatu dituzte. Jasotako lan guztiak ikusgai izango dira Plazida Otañoko erakuslehoan, apirilaren 30era arte.

Bertso saioa maiatzaren 7an, Ibarra plazan

IBARRA // Hauspoa elkarrekin bertso saio bat antolatu du maiatzaren 7rako. Plazan izango da, 18:30etik aurrera, eta Ane Zubia, Aner Peritz, Maider Altuna, Hazea Arana, Ekhiñe Zapiain eta Aimar Sorazu izango dira bertsolariak. Gai jartzaile lanak Garroa Lizartzak egingo ditu. Gonbidapenak kultur etxean eskatu behar dira (943 67 03 99).

✉ GUTUNA

Sektore publikoaren grebaren alde

ELA, LAB, CCOO, SATSE, STEILAS eta ESK sindikatuek greba orokorra deitu dute sektore publikoan, apirilaren 22an EAEn. Ezker Iraultzailetik gure babes osoa adierazi nahi diogu deialdi honi. Zalantzarik gabe, aurrerapauso handia da azken hilabeteetan kaleek hartu dituzten borroka guztien indarrak bateratzeko eta eskubide oinarrikoen kontura negoziario egin nahi dutenengandik gure zerbitzu publikoak defendatzeko.

Premiazkoa da EAJ-PSEren Eusko Jaurlaritzaren murrizketa eta pribatizazio politika kontzientearekin amaitzea, administrazio honek milaka langilari ezartzen dizkien behin-behinekotasunarekin eta prekarietate baldintzekin amaitzea, horiek finko eginez. Osasuna, Hezkuntza eta funtsezko zerbitzuetan beharrezkoak diren milaka enplegu publiko sortzea eta zerbitzu subrogatu eta pribatizatu guztiak berehala publikatzea beharrezkoa da, plantillak mantenduz eta langile publiko bihurtuz.

Eusko Jaurlaritzak berak airtortzen duenez, EAEn sektore publikoak du Espainiako estatu-ko eta Europako behin-behinekotasun tasarik handiena. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 10 langile publikotik lau modu prekarioan daude, guztira, 50.000 pertsona. Zerbitzu publikoen degradazio eta abandonuarekin batera doa pribatizazio prozesua. Hori izan da EAJren ekinbidea hainbat hamarkadatan zehar.

Egoitzetako, haur eskoletako, etxez etxeko arretako, jantokietako, Osakidetza eta hezkuntzako langileek hainbat mobilizazio egin dituzte egoera salatze-ko. Pandemiak ikaragarri argi utzi du zerbitzu horien subrogazioak, prekarietateak eta murrizketek dituzten ondorio katastrofikoak, bai langileentzat, bai gure klase osoarentzat. Sektore hauek geroz eta zailtasun gehiago dituzte oinarriko zerbitzuak eskuratzeko, osasunean, hezkuntzan, mendekoen arretan edota adinekoen zaintzaren alorrean.

Hain zuzen ere, borroka horiek bultzatu dute apirilaren 22an deitutako greba orokorra. Aurrerapauso handia da, baina hain urrun iritsi da oinarriko zerbitzuen pribatizazioa, ezen

sektore publikoko langileen indarrak batu behar baitira pribatizatu diren zerbitzuetakoekin, horiek publikatze eskatuz eta prekarietateari amaiera emanez. Indarrak are gehiago bateratu daitezke eta bateratu behar dira, prekarietateak eta borrokek ez baitiote soilik sektore publikoari eragiten.

EAEn azken hilabeteetan langileen erantzunak ez du etenik izan: sektore aeronautikoko enpresen manifestazioak, Ertzaintzak bortizki jazarri zuen Tubacexeko langileen borroka, Aiaraldeko mobilizazioak, urtarrilaren 30ean 50 batzordek eta hainbat kolektibok Gasteizen deitutako mobilizazioa, Mercedes Benzen protestak, zahar egoitzak, eskola jantokiak eta garraioa, Sestaon desindustrializazioaren aurka A-17an egindako manifestazioan parte hartu zuten milaka pertsona eta abar.

Sektore publikoaren greba oso albiste ona da. Hurrengo urratsak borroka bateratzea eta are gehiago zabaltzea izan behar du ekoizpen-sektore guztien greba orokor batean, iazko urtarrilaren 30ean egin genuen bezala. Horrela eman behar dugu kolpea, guztiok batera, murrizketak, kaleratzeak eta esplotazioa inposatzen digutenen eta haien zerbitzura dagoen EAJ-PSEren Jaurlaritzaren aurka. Beharrezkoa da 2020ko urtarrilaren 30eko Greba Orokorrerako sortu ziren greba batzordeak berraktibatzea eta goranzko norabidean mobilizazio egutegi bat planteatzea, Gutun Sozialak aurkeztutako aldarrikapenak berreskuratu eta zabalduz.

Bizi dugun krisia ez da hilabete batzuetan desagertuko den koiunturazko zerbait, ezta jasaten ditugun erasoak ere. Gure aldarrikapen guztiak guztiz posible dira, baina horiek lortzeko alternatiba iraultzaile baten aldeko apustua egin behar da, gure klasearen mobilizazio bateratuan oinarrituz: pribatizatutako sektore, enpresa eta zerbitzuak publikatzea, banku eta enpresa handiak kapitalisten eskuetatik desjabetzea eta langileen kontrol demokratikoan jartzeari, irabazi pribatuaren arabera beharrean, ekonomia gizartearen beharren arabera planifikatuz.

Pribatizaziorik, murrizketarik eta prekarietaterik ez! Zerbitzu publikoaren alde!

Jesus Mari Aranzegi eta Manu Odriozola Ezker Iraultzaileak - Euskal Herria Sozialista

Lanpostu publikoak egonkortzea eskatuko dute biharko greban

Erakunde publikoetako langileen %40k behin-behineko baldintzetan dihardutela salatu dute sindikatuek; Ikasle Abertzaleek mobilizazioa egingo dute gaur Tolosan

Erredakzioa

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako langile publiko guztiak grebara deituak daude biharko. Martxoaren lehen lanuztea egiteko asmoaren berri eman zuten sindikatuek, eta, behin-behinean dauden langile publikoen egoerari buruz hitz egiteko deirik jaso ez zuten, ELA, LAB, CCOO, SATSE, Steilas eta ESK sindikatuek greba deialdi ofiziala erregistratu zuten apirila hasieran. Behin-behinekotasun tasa %40tik gorakoa dela diote, guztira 60.000 langile ingururi eragiten diela, eta sektore publikoko arlo eta maila guztietan gertatzen dela: udaletan, aldundietan, Osakidetzan, hezkuntzan...

ELA sindikatuak emandako datuen arabera, Osakidetzan behin-behineko 15.000 langile daude, hezkuntzako arlo batzuetan %70etik gorakoa da tasa, administrazio orokorrean %45ekoa da, eta udal batzuetan langileen hiru laurdenak aldi baterako kontratuarekin daude. LAB sindikatuak, bere aldetik, «negoizazio kolektiboa» aktibatze eskatu die erakundeei, «aldebakartasuna» uzteko, eta aitzakiarik ez jartzeko: «Jaurlaritza mugitu egin behar da arazo hau konpontzeko. Bukatu da Madrileraren egotearena. Bukatu da epaitegien zain egotearena. Arazoa hemen dugu eta hemen konpondu behar dugu. LABen garbi dugu lege propioak behar ditugula horretarako».

Azken hilabeteetan hainbat lanuzte antolatu dituzte. Martxoaren 4an zaintza sektoreko greba egin zuten, arlo publikoan zein pribatuan, eta iazko irailaren 15ean hezkuntzan, ikasturtea hasi eta berehala. Pandemiaren protesta gehien egin duen erakunde publikoa, dena den, Osakidetza izan da. Iazko urrian eta azaroan egun bakarreko greba deialdiak egin zituzten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta



Iazko ekainean Eskubide Sozialen Kartak egindako elkarretaratzea. ATARIA

lanuzte orokorra urtarrilaren 28an.

GAUR ELKARRETARATzea

Ikasle Abertzaleak antolakundeak kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala izango den hezkuntza eredu aldarrikatuko du gaurko grebaren harira antolatutako mobilizazioetan. Trianguloan egingo dute gaur protesta, 11:00etan, *Langile klasearen hezkuntzarako sarbidea defendatu* lelopean.

Ikasleriak bere gaitasun politikoak irabaztea da lehenetsi nahi dutena Ikasle Abertzaleek, «ofentsiba burgesa bere adierazpenik gordinenean neutraliza-

tzeko beharrezko baldintza baita».

Gaske antolakundeak «larritasun handiz» ikusten du langile klasea hezkuntzatik kanporatua izateko arriskua, alegia, «burgesiaren ofentsibaren ondorio izaten ari den pribatizazioak sor dezakeen segregazioaren handitzea». Ikasle Abertzaleak taldearen ustez, «pobregoa eta otzanagoa izango den langileria-aren eraikuntzak, hezkuntzak duen eginkizun determinantea agerian geratzen ari da. Implizituki ikasketa prozesu kapitalista jokoz kanpo uzten ari da ikasleriaren sektorerik proletarizatue-na».

ataria_k

**PERTSONA BAT BEHAR DU
HARPIDETZA KANPAINARAKO**

ESKATZEN DA:

- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.
- Marketinean eta Sare Sozialetan ezagutzak izatea baloratuko da.

ESKAINTZEN DA:

- Aldi baterako ordezkapen kontratua.
- Lanaldi osoa.
- Lantokia Tolosan.

Interesa duenak **Curriculum Vitae zehatza** bidali tkt@ataria.eus helbide elektronikora edo Tolosaldeko Atariara (San Esteban, 20. 20400 Tolosa) **2021eko apirilaren 28a baino lehen.**

Natura babestu eta berarekiko harremanak indartzeko jaialdia

Natura eta Ingurumen Zinemaren I. Erakustaldia ospatzen ari dira Gipuzkoan zehar; Leidorren izango da amaiera ekitaldia, 'Natura Bizia' dokumentalaren proiektioarekin

Josu Artutxa Dorronsoro

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak Gipuzkoako Natura eta Ingurumen Zinemaren I. Erakustaldia antolatu du. Apirilaren 13an hasi zen, eta ostirala bitarte luzatuko da; Leidor aretoan ospatuko da lehen edizioaren amaiera ekitaldia. «Orotariko herriarrentzako ekitaldi eta baliabide-programa da, naturarekiko eta, bereziki, Gipuzkoarekiko lotura bultzatzeko», adierazi du Patxi Amantegi ingurumen zinegotziak.

Tolosaz gain, lurraldeko beste zazpi herrietan ari dira lanak eskaintzen: Azpeitin, Deban, Donostian, Eibarren, Errenterian, Oñatin eta Zumaian. Horietan, naturarekin lotutako hamar film proiektatzen ari dira. Sarrera dokoa da saio guztietan, baina aurrez eskuratu behar dira gonbidapenak www.gipuzkoa.eus-en. Tolosaren kasuan, jada film bat ikusteko aukera izan zen, ostira-lean, Topic-en: Joaquin Gutierrez Achak zuzenduriko *Dehesa*. «Iberiar Penintsulako zonalde ezezagunena erakusten du», adierazi du Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatuak.

Apirilaren 23an, berriz, amaiera ekitaldiaren barruan, Lexeia Larrañagak eta Alexander Gutierrezek zuzendutako *Natura Bizia* filma eskainiko da Leidor aretoan. «Ongien kontserbatutako txokoak, biodibertsitate ikusgarriena eta Euskal Herriko egoera basatienean dagoen fauna erakusten du. Itsaslabar bertikalek, itsaso amaigabeak, magiaz betetako basoek eta kareharrizko mendi handiek bizipen ahaztezinez gozatzeko aukera eman digute», azaldu du ingurumen diputatuak. Saioaren amaieran, zuzendariekin hitz egiteko eta lanaz hausnartzeko aukera izango dute ikusleek.

TOLOSA, EZIN APROPOSAGOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, urteak daramatza natur jardunaldiak antolatzen. «Oraingoan, zinema erakusketa batekin gatoz, tolosarrak naturarekiko dituzten



'Natura bizia' dokumentaleko irudi bat: sarriro ahuntz basatia, Euskal Herriko eremu elurtu batean. AVIS PRODUCTIONS



«Animaliak ez dira aktoreak, ezin ditugu gidatu»

LEXEIA LARRAÑAGA
'NATURA BIZIA'
DOKUMENTALEKO
ZUZENDARI ETA GIDOILARIA

J. Artutxa Dorronsoro

Zinemarekiko eta naturarekiko duen grinak Avis Productions ekoiztetxea sortzera bultzatu zuen Lexeia Larrañaga. Orain, bere sormena eta ingurumenarekiko duen ikuspegia islatuz, *Natura bizia* dokumentala osatu du, Euskal Herriko natura basati eta bereziena erakusteko. Duela

egun gutxi estreinatu zuten, eta «harrera oso ona» izan duela dio. **Zer dela eta erabaki zenuen dokumental bat egitea?**

Lau urte dira ideia garatzen hasi ginela, Euskal Herrian dugun biodibertsitatea benetan ezagutarazteko asmoz. Kaletarrei, etxetik gertu natura ikusgarria dugula erakustea da helburua, ez dela beharrezkoa paradisuzko lekuak bisitatzea. Hemen ere toki liluragarriak ditugu, babes-tea merezi dutenak.

Nolako lana izan da?

Filmatu ditugun animalia guztiak basatiak dira. Orduan, denbora tarte handia eskatzen duen lana da; urtarok ere aldatuz doaz, eta herrialde edo klima batetik besterako animalien joan-etorriak etengabeak dira. Ez dira aktoreak, eta ez dute egiten zuk nahi duzuna; ezin ditugu gidatu. Jarraipen bat egin behar zaie filmatzen hasi aurretik: nondik nora dabiltzan ondo identifikatu, kamera ezberdinak ipini, eta azkenik, pazientzia handiz, mugimenduak egitera itxaron.

Jardunaldi luzeak izan dira. Tarteka, ibilaldi luzeak egin behar izan ditugu mendietan, baita tenperatura baxuetan geldirik

egon ere. Beste batzuetan, ezer grabatu gabe itzuli behar izan dugu etxera. Ondorioz, gogorra da, baina gerora, irudiak grabatzeak ikaragarri asetzen du. Hori bai, momentu bakoitza behar bezala aprobetxatzea eskatzen duen lana da.

Bizia al da Euskal Herriko natura?

Bi esanahi ditu izenburuak. Batetik, bizirik dagoen natura da Euskal Herrikoa, eta aldi berean, gu naturaren parte garen moduan, gure bizitzaren parte da.

Geroz eta ikusgarriagoak izaten dira mota honetako dokumentaletako irudiak...

Bai, baina baditu bere alde ilunak. Askok, adibidez, baimenik gabe eta hegaztien ibilera trabatu dezaketen lekuetan erabiltzen dituzte droneak, eta hori ez da etikoa. Errespetuz eta elkar zainduz jokatu behar dugu. Gainera, ezinbestekoa da irudi horien atzean istorio bat kontatzea.

Dokumentalaz gain, telesail bat ere ekoitzi duzue.

ETB-n eskainiko da; ordubeteko zortzi atal izango dira, adituen hitzekin, eta Alberto Iñurategik aurkeztuko du. Euskal Herriko gune ezberdinak bisitatuko ditu.

harremanetan sendotzeko eta ingurumenarekiko errespetuan eta jasangarritasunean oinarritutako balioetan hezteko», adierazi du diputatuak. Antolatzaileen hitzetan, «gertuen dugun naturaren kalitatea zabaltzea» da jaialdiaren helburua. «Gizarteak naturarekin erlazionatzeko dituen formak ezagutzea nahi dugu», gaineratu du Amantegik.

Asensio adierazi duenez, proiektu «irekia» da Gnat Zinema, «sorkuntzaren dibulgaziotik hasita, naturaren defentsan lan egin behar dela pentsatzen dutenei eskainia». Era berean, ekimen honek «meditaziora, errealitateari buruz kontzientziazteara, eta nor garen eta gure ingurunearekin nola erlazionatzen garen hausnartzera» gonbidatzen gaituela azpimarratu du.

Amantegik nabarmendu du Tolosak «harreman berezia» duela naturarekin, mendiarekin, gure ingurunearekin eta tradizioekin. «Naturak, kulturak edota turismoak erakartzeko ahalmen handia dute gurean, eta nabaria da lotura estu hori, urte osoan zehar antolatzen diren ekimenen bitartez».

ESENTZIA ISLATZEA

Jaialdiaz gain, Gipuzkoako gazte eta helduentzako lehiaketa bat antolatu dute, eta bi maila izango ditu: lurraldeko ikastetxeetako DBH-ko ikasleena, eta 18 urteko gorako herritarrena. Bietan ere, inguruko naturaren esentzia islatzen duen eta dugun harremanari buruzko 3-5 minutuko film labur bat egin beharko da. Maiatzaren 7ra arte jasoko dira proposamenak eta ekainean eza gutuko da irabazlea.

Saritutako lanak, Gnat Zinema 2022 jaialdian aurkeztu eta eskainiko dira; helduen mailan, gainera, 6.000 euro jasoko ditu lan onenaren egileak, 15-30 minutu bitarteko ikus-entzunezko bat garatzeko. Era berean, parte hartzen duten DBH-ko ikasleek, opari sorta bana jasoko dute. Beste batzuen artean, Edurne Pasaban alpinista tolosarra izango da epaimahaiko kidea.

Teilatuko obren gastua kontatu gabe onartu dute aurrekontua

Orendaingo Udalak 292.216 euroko aurrekontua du 2021erako; dagoeneko kultur etxeko teilatuko obrekin hasi dira, baina ez dute espero obra beraiek ordaindu beharko dutenik

Eneritz Maiz Etxarri Orendain

Orendaingo Udalak 292.216 euroko aurrekontua onartua du aurtengorako. Miel Angel Arsuaga alkateak «lan askorekin» dabilzala aitortu duen arren, aurrera begira jarrita ari dira lanean.

Iazko urtea ez zuten ondo bukatu Orendainen, haizeteak, besteak beste, kultur etxeko teilatua bota eta gero. Hilabete luzeak pasa dituztela kontatu du teilatura begira, batik bat, haur eskolara euririk ez sartzeko. Dagoeneko, ordea, «lasaitua» hartuta daude, teilatua jarri diotelako kultur etxeari.

Gainerakoan, aurtengo aurrekontua kultur etxean sortuko diren gastuak aurreikusi gabe egin dutela esan du Arsuagak. «Beti ere, aseguruak orain artean nahiko ondo ari direla portatzen pentsatuta egin dugu. Hitz egin dugunagatik badirudi azkenean lan horien kargu egingo direla», argitu du.

Ohiko gastuetara bideratutako diruaz gain, inbertsioetarako geratzen zaien dirua herrira begira dituzten proiektu batzuk gauzatzeko erabiliko dute. Azken hiru urtetan frontoi zaharreko proiektuari begira aritu dira lanean, baina, aurrean, albo batera utzi, eta herrian behar garrantzitsuagoak jo dituzten lan batzuei ekingo dietela argitu du.

«Anduti, Lizarribar, Zutzarri... baserri batzuk herriko urik gabe daude. Beraien deposituak dituzte, baina egoera txarrean daude eta proiektua egin dugu ura baserrietara eramateko», azaldu du Arsuagak. Diru laguntza eskatuko dute: «80.000 euro inguruko inbertsioa da, eta ez dakit zenbaterainoko laguntza emango diguten, baina frontoi zaharreko proiektua baino garrantzitsuagoa iruditu zaigu, eta horren ordeztu proiektu hori sartu dugu Leader diru laguntzara».

Baserriekin jarraituz, Murgi baserriko bidea asfaltatzeko asmoa du udalak, oraindik asfaltatu gabe dagoelako.

Horiez gain, udaletik haurren



Duela pare bat astetik Orendaingo kultur etxeak teilatua jarrita dauka; orain, beste gutzia egitea falta da eta pare bat hilabete beharko dituzte. ENERITZ MAIZ

parkeko lurra konpondu beharrean dagoela ikusten dutela esan du alkateak, «horretarako ere aurrekontua eskatua dugu».

ERAIKIN PUBLIKOETARA, GASA

Ostaturako, udaletxerako eta elkarterako gasa sartzeara erabaki du Orendaingo Udalak. «Gaur egun udaletxea gasolioarekin berotzen dugu. Ostaturako gasa du baina bonbonekin eta elkarterako ere bai. Urteak daramatzagu kexatzen bonbona horiekin horrela ez dagoela ibiltzerik, eta orain depositu bat jartzeko proiektua dugu».

Bi eraikinak hornituko lituzke gas deposituak. «Udaletxean dugun gasoliozko galdarak baditu 25 bat urte, eta ezin dugu horrela jarraitu», dio. Leku faltagatik egokiena gasa jartzeara ikusi du udalak.

Esku artean dituzten proiektuak «egin beharrekoak» direla azpimarratu du: «Mantenu lanak dira, parkeko lurra hondatuta dago, eta jarri beharra daukagu eta gasarena ere beharrezkoa da. Ez da orain bururatu zaigula». Nolabait, herria txukun mantentzeko lanak direla au-

rreikusi dituztenak nabarmendu du.

TEILATUA JARRITA

Bost hilabete luze izan dira, baina teilatua jarri berri diote kultur etxeari. «Orain gustura gaude», dio. «Ibili garen bezala ibili eta, egunero teilatura begira jarrita; eurria dela, haizea dela... eta behintzat txapela jarri diogu», esan du. Garrantzitsua zen teilatua jartzeara Arsuagarentzat, «jada barruan hezetasunak hasita baitzeuden». Alkatearentzat urdu-

«Orain gustura gaude; teilatua jartzea lortu dugu, eta pixka bat lasaitu gara»

MIEL ANGEL ARSUAGA ORENDAINGO ALKATEA

ritasun edo ardurarik handiena, ordea, haur eskolak sortutakoa izan da. Urarengatik behin itxiz gero, berriz irekitzeko aukerarik izango zuten ez zekitelako. «Lortu dugu, eta pixka bat lasaitu gara», aitortu du.

Teilatua baino ez dute jarri oraindik, eta lan handia dute egi-

teko. Lehen zuen itxura mantendu nahi dute, eta orain proiektu bat eginda «leihen seguruagoak» jarriko dituzte. Horrez gain, barruan eraikinak izan dituen kalteak ere konpondu beharra daukate. Lehen zegoen bezala utzi nahi dute, eta horretarako argiteria lanetatik hasi eta liburuetaraino egin behar dute lana. Itxaropentsu da, eta «hilabete pare batean» uste du bukatu beharko lirakeela. Gutxi gorabehera eginga dute kalteen balorazioa; «baina aseguruari esaterako ere guk ikusi behar dugu aurretik zer zegoen eta nola zeuden gauzak». Aseguruaz gain, aldunditik ere diru laguntzaren bat jasotzea espero dute Orendainen.

FESTAK ETA KULTURA, NAHI

Herriko festak antolatzeke eta kultur ekitaldiak egiteko diru partida aurreikusi du udalak. «Baina ez dakit nola joango diren gauzak», adierazi du Arsuagak.

Hurrengo hilabeterako bertso ekitaldiren bat antolatzekotan direla aurreratu du, baina ez dakitela ziurra izango den edo ez. Gainerakoan, zalantzak sortzen zaizkio: «Guk gure partetik ba-

ZENBAKITAN

SARRERAK	EUROAK
Zuzeneko zergak	31.800
Zeharkako zergak	1.000
Tasak eta beste sarrerak	20.400
Transferentzia arruntak	228.006
Ondare sarrerak	6.210
Kapital transferentziak	4.800

GASTUAK	EUROAK
Pertsonal gastuak	121.976,12
Gastu arrunt eta zerbitzuetan	85.000
Finantza gastuak	1.200
Transferentzia arruntak	48.300
Inbertsio errealak	21.239,88
Kapital transferentzia	2.500
Finantza pasiboak	12.000

GUZTIRA	292.216,00
----------------	-------------------

dugu gogoaz gauzak egiteko, baina askotan mugatuta aurkitzen gara egiteko, eta bestetan pentsatzen duzu gauzak ondo ez egiteko, bada hobe dugu ez egitea». Gauzak gaizki edo erdipurdi egin ez gero, gainera, kritikak jasotzeko prest egon beharra dagoela azpimarratu du, eta hori ere kontuan izan behar dela dio.

Jolas ezberdinekin irakurzaletasuna landuko dute Lizartzan

Ipuin, kantu, olerki eta hitzen bueltako bi saio antolatu ditu Lizartzako Udalak herriko gaztetxoentzat; liburutegian izango dira saioak eta Mari Garciak dinamizatuko ditu

Irati Saizar Artola Lizartza

Haur eta gurasoek elkarrekin une atsegin bat pasatzeko tartea izan dezaten irakur jolas txokoa prestatu du Lizartzako Udalak, eta taldeka, bina saio egingo dituzte Mari Garcia dinamizatzailearekin. Ipuin, kantu, olerki eta hitzekin jolas egiteko aukera izango dute parte hartzen dutenek, eta bide batez, euskarazko haur literaturako baliabideak ikasteko aukera izango dute.

Gaur hasiko dira saioak 2014-2016 artean eta 2011-2013 artean jaiotakoentzat. Lehen taldearentzat 17:00etan eta bigarrenarentzat 18:00etan. Hurrengo saioak maiatzaren 19an egingo dituzte, talde bakoitzak ordu berean. Talde horietako haurrek heldu ba-



Lizartzako udal liburutegia, artxiboko irudi batean. ATARIA

ten laguntzarekin joan beharko dute. Bestalde, 2007tik 2010era bitartekoek apirilaren 26an izango dute lehen saioa eta maiatzaren 24an bigarrena. Biak, 17:00etan. Kasu honetan, bakarrik joan ahalko dira. Parte hartzeko, aurrez izena eman beharko dute liburutegian eta bi saioek 5 euroko kostua izango dute.

Horrez gain, Liburuaren Egunaren harira, liburu trukea egitea proposatu du Lizartzako irakurketa batzordeak. Gaur izango da azken eguna liburuak liburutegira eramateko, pertsonako bi liburu gehienez. Eta ostiralean, beste liburu bat jaso ahalko dute trukean, plazan, 16:00etatik aurrera.

Hitanoa lantzeko ikastaroa egingo dute Ibarra

Maiatzeko lehen astean hasiko da eta ordu eta erdiko lau saio egingo dituzte; doan izango da eta izena 'online' eman behar da

Erredakzioa Ibarra

Hitanoa praktikatzeko ikastaroa antolatu dute Ibarra Hauspoa Kultur Elkarteak eta herriko Euskara Batzordeak, Deabruak Kalea asanblada feministaren laguntzarekin. Ikastaroari hasiera maiatzean emango zaio, eta interesa duten guztiei zabaldua dago; ez da maila bereizketarik aurreikusten, hau da, hitanoa jakin edo ez, edonork izango du joateko aukera eta saioak doan izango dira.

Maiatzeko lehen astean hasiko da ikastaroa, lau pabost asteko iraupena izango du, eta ordu eta erdiko iraupena izango du klase bakoitzak. Izena eman nahi dutenek labur.eus/ibarrahika estekan sartu eta bertako formularioa bete beharko dute. Jasotako erantzunen arabera erabakiko



Hitano ikastaroaren kartela. ATARIA

da asteko zein egunetan eta zein ordutan izango den.

Izan emakume zein gizon, izan adinez helduago zein gazteago, izan hitanoa inoiz entzun gabea zein tarteka batzuekin erabiltzen duena; hitanoa hobetu nahi dutenek edo zalantzak argitu nahi dituztenek «aukera paregabea» dute Ibarra hizkuntza erregistroa lantzeko.

Emakume idazle eta ilustratzaileak ezagutuz

I.S.A. Ibarra

Euskal emakume idazleak eta ilustratzaileak bultzatzeko eta ezagutarazteko egitasmo bat jarri du martxan egunotan Ibarra-ko Udalak. Irati Garmendia Aranburu idazleak eta Ane Arzelus Rodriguez ilustratzaileak *Xo-*

morro lapurra liburua argitaratu dute, eta horren harira, erronka bat proposatu diete 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilei: zomorro bat marraztea. Nola, ordea?

Asteleheneetik hasita gaur arte, hiru bideo argitaratu ditu udalak bere sare sozialetan, esteka bidez, gida moduan: astelehene-

an, ipuin bat kontatu zuen Garmendiak; atzo, ipuinarekin lotutako ilustrazioak nola egin erakutsi zuen Arzelusek; eta, azkenik, gaur, haur ibartarrei erronka aurkeztuko diete: marraztu dezatela zomorro bat.

Egiten dituzten marrazkiak Ibarra-ko kultur etxean entregatu

beharko dituzte bihartik hasita apirilaren 29a bitarte. Marrazkiari izena jarri beharko zaio eta izen bera duen gutun-azal batean parte hartzailearen izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa jarri beharko dituzte. Guztia kultur etxean utzi beharko dute.

Herritarrek aurkeztutako marrazki guztiekin erakusketa bat jarriko dute maiatzaren 4tik 13ra kultur etxeko areto nagusian, eta azken egunean, Garmendia idazleak *Xomorro lapurra* liburuaren hiru ale zozkatuko ditu parte hartu duten guztien artean.

Hilberriak eta urteurrenak

ATARIAn jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

«Aspen bezala, Baikon ere nire mailarik onena ematen saiatuko naiz»



I.G.L.

ERIK JAKA PILOTARIA

Beste kamiseta bat jantzi arren, izena bera izango dela eta pilotaria ere bai dio Erik Jakak; Aspeko jendeaz daraman irudia eta berak uzten diena ona dela nabarmendu du

Asier Imaz/Imanol Garcia Lizartza

Kirol ibilbidean etapa berri bati hasiera emango dio Erik Jakak (Lizartza, 1994). Aspe enpresan zortzi urte egon eta gero, Baiko Pilotarekin sinatu du. Asperen kamiseta jantzita duela azken partida jokatu du larunbat honetan, Logroñoko Adarraga pilotalekuan. Atzelaria Xabier Tolosa anoetarra izango du, eta aurkari Peio Etxeberria eta Martija.

Buruhauste asko izaten ari zara azken egunotan?

Nahigabe ere izaten dira buruhausteak, ez gauzak gaizki zeudelako edo horrelako zerbaitengatik, baina nahi gabe ere buruari buelta gehiago ematen dizkiozu. Aurreko astean dena sinatu, bukatu eta argitaratu zenean, lasaitu dezentea hartu nuen.

Baikorekin 2024ko abenduarren 31 arte sinatu duzu. Nahi bezain luzea da hitzarmena?

Egia esan oso kontentu nago lortu dudana akordioarekin. Denok gure ibilbidea luzatu nahi izaten dugu, baldintza onetan jokatzen aritu, eta ni alde horretatik oso gustura geratu naiz. Lehen Aspe-

rekin nuen kontratua 2022ko abuztuan bukatzen zen. Orain sinatu dudana luzeagoa da eta ekonomikoki ere hobetua izanik, oso kontentu nago.

Ezustekoa ere izan da zure hitzarmen berriaren albistea.

Azken garaian entzuten zen Aspetik Baikora pilotariren bat edo beste pasatzea, baina ez duzu agian inoiz pentsatzen zu izango zarela bide hori hartuko duena. Niri orain aste batzuk esan zidaten Baikoren aldetik interesa zegoela ni bertara joateko, eta gauzak ondo egin ditugu: hiru alderdiek tratatu beharreko gai bat zen eta horrela egin dugu. Nik uste dut iritsi garen puntura iritsita, hiru aldeak gustura geratu garela, eta hori dela garrantzitsua.

Azken garaian jauzia eman duzu, tartean buruz burukoan txapela jantziz. Akordio berri honek hori islatzen du?

Nik uste dut hortik doazela tiroak. Nik orain arte izandako kontratua orain bi urte sinatutakoa da. Nire gorakada ere orduan hasi zen gehienbat. Kontratuak normalean kirol mailarekin bat joaten dira, eta izan dudana kon-

tratu orduko nire kirol mailarekin guztiz bat zetorren, eta horregatik sinatu nuen. Orain ikusita azken bi urte hauetan izan dudana gorakada hori, eta lehen mailan pixkana egonkortu naizela, txapelketetan titular izaten ari naiz, eta 2020ko txapela irabazi eta txapeldunorde izateak aukera eman dit kontratu hobe bat lortzeko.

Nahiz eta baldintzak hobetu, ez zen erraza izango erabakia hartzea, Aspen zortzi urtez egon ondoren.

Ez, azkenean buruari buelta dezentente ematen dizkiozulako. Nik garbi dudana da ez noala Baikora alor ekonomikoagatik bakarrik. Ilusioa sortzen didan pausoa da, uste dut nire kirol ibilbidean aurrerapauso bat dela, eta esperientzi berri bat bizitzeko gogoia dut. Egunerokoa ez zait gehiegi aldatuko. Bai arituko naizela tekniko berriekin, eta Aimar Olaizolarekin lan egiteko ilusio berezia dut.

Baikon enpresaren pisua eramatea tokatuko zaizu orain?

Ez dakit hori horrela izango den. Garbi dudana da Aspen saiatu naizen bezala, Baikon ere nire mailarik onena ematen saiatuko naizela, eta gero emaitzak ere hortik etorriko dira. Aspen lortu badut lehen mailan jokatzea, Baikon ere helburu horiek ditut, eta alde horretatik egingo dut lan.

Zer sentsazio dituzu Aspeko pilotari bezala jokatu duzun agurreko partidarekin?

Sentsazio nahiko arraroak. Aho zapo onarekin utzi nahi dut Aspe. Bertako jendeaz daraman irudia eta nik beraie izutiko didana ona da, eta uste dut bizitza honetan garrantzitsua hori dela.

Orain zaleek kamiseta berria erosi beharko dute.

Ez dut uste kamiseta aldatzeagatik pilotaria aldatuko denik. Aspen eman ditudan urteak oso onak izan dira, eta Baikon espero dut horrelako urte onak izatea. Zaleek ikusiko dute Aspeko edo Baikoren kamiseta eraman; egia esan, polita izango litzateke Baikokoarekin ikustea orain, baina izena bera izango da eta pilotaria ere bai.



Martxoaren hasieran, Olaederrako arratsaldeko saioan parte hartu zuten Danok Danena taldeko pultsulariak. DANOK DANENA

Kortajarena bosgarren izan da Espainiakoan

Danok Danena halterofilia taldeko Jon Kepa Kortajarena pultsulariaren lehen parte hartzea izan da junior mailan

Imanol Garcia Landa Zizurkil

Danok Danena halterofilia taldea murgildu da lehiaketetan, eta asteburu honetan bertako pultsularia den Jon Kepa Kortajarenak bosgarren postua lortu du junior mailan Espainiako Txapelketan. «Ez zuen zorte ona izan», esan du Batis Kortajarena entrenatzaileak.

Bederatzietan hasi behar zuen bere saioa, eta ordurako egin zuten bere beroketak, baina arazo teknikoak zirela eta ordu erdi atzeratu zen. «Jon Kepa prest zegoen ateratzeko eta azkenean nahasketa horrek eragin zion, eta ez zuen asmatu», esan du Kortajarenak. Laugarren marka onenarekin sailkatu zen txapelketara joateko eta hirugarren postua lortzeko aukera zuen. «Arriskatu genuen, eta ez zen nahi bezala atera».

Bost pultsularik bakarrik parte hartzen zuten pisu bakoitzean, baina kontuan izan behar da bere meritua izan duela Espainiako Txapelketara sailkatuz. Aurten lehenengo urtea du junior mailan Kortajarenak, eta gainera pisuz igo da, 55 kilotatik 61 kilotara, eta horrek ere erronka handiagoa suposatzen du.

SAIOAK OLAEDERRAN

Denboraldiari hasiera martxoaren lehen asteburuan eman zion taldeak, Villabonako Olaederra kiroldegian, goiz zein arratsalde-

ko saioak eginez. Batetik, Espainiako Ligari begira aritu ziren. Gizonezkoen ohorezko mailan zazpigarren dago Danok Danena. B taldearekin ere lehiatzen dira gizonezkoetan, bigarren mailan, eta seigarren postuan dago. Emakumezkoetan seigarren postuan daude lehen mailan. Ligaren hasiera dela kontuan hartuta, hobetzeko aukera dugu», esan du entrenatzaileak.

Egun horretan ere senior mailako taldekako Euskadiko Txapelketa egin zuten. Gipuzkoako bi selekzioak, bai gizonezkoak zein emakumezkoak, Danok Danena taldeko kideekin osatu ziren, eta biak izan ziren garaile. Gizonezkoetan Mikel Alvarez, Ekaitz Kortajarena, Igor Sasiain, Gorka Enjilo eta Jon Ander Iriartek parte hartu zuten, eta Mikel Alvarez izan zen onena. Emakumezkoetan Susana Davila, Alazne Gomez, Naiara Madrid, Nalu Herranz eta Elena Mangasek parte hartu zuten, eta Susana Davila izan zen onena.

Larunbat honetan izango da halterofilia txapelketa berri ere Olaederra kiroldegian. Gipuzkoako Txapelketa izango da jokoan eta 53 pultsularik parte hartuko dute, horietatik erdiak Danok Danena taldekoak eta besteak Zarauzko eta Irungo taldeetakoak. Gipuzkoako Txapelketa jokatzeaz gain, Espainiako Ligaren bigarren jardunaldia egiteko baliatuko dute.



ASTEAZKENA, 2021EKO APirilak 21
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

«Betidanik gustatu izan zaizkidan gaiak ari naiz ikasten»

EKAITZ LUKANBIO LUCAS
FRAISORO ESKOLA

Basogintzako goi mailako zikloa ari da egiten Ekaitz Lukanbio Fraisoro eskolan.

Zergatik erabaki zenuen Lanbide Heziketa egitea?

Lanbide Heziketa egitea erabaki nuen, batik bat gustuko ikasketa batean oinarritu nahi nuelako eta lantokietan edukitzen diren esperientziak ezagutu ahal izateko.

Zer moduz Dual prestakuntzan/praktiketan/ikasten ari zaren zikloan? Zail egiten ari al zaizu?

Nere kasuan, Dual prestakuntza bidez ikasteko aukera ez dut izan, baina gelakide baten hitzak entzunda, oso gustura ibili zela esan zidan, bai eskolan zein lantokian. Lorazaintzako bigarren urtea amaitzeko praktikak Viveros Urkiondon egin nituen. Tamalez, bi



aste neramatzan bertan praktikak egiten, COVID-19 ren kontua hasi zenean Euskal Herrian. Orduan, abisua pasa ziguten bertan behera geldituko zirela praktika horiek. Egoera lasaitu zenean, maiatza inguruan, kurtsoa amaitu ahal izateko, nire lehen lan kontratua egiteko aukera eman zidan Gureak en-

presak. Lan esperientzia bikaina jasotzeaz gain, lan mundua gertutik ezagutzea lortu nuen. Aurten Basogintzako goi mailako zikloan nago Fraisoro eskolan. Betidanik gustatu izan zaizkidan gaiak ikasten ari naiz orain eta Lanbide Heziketan sartzeko arrazoi nagusienetako bat, ziklo hau ikasi nahi nuelako izan zen. Azpimarratzen da eduki dudana zorzea gelakide, taldekide eta irakasle taldearekin, egunerokoa elkarren artean laguntzeaz gain, denbora gutxian harreman sendo eta polita egin baitugu.

Zer esango zenuke Lanbide Heziketari buruz?

Aukera ezin hobea dela ikusten dut lan munduan gehiago murgildu nahi duenarentzat. Esperientzia lortzeaz gain, gustatzen zaizkizun ikasketak egin ditzakezula. Lan kontratu bat lortzeko interesa duenarentzat, bide egokia da, lantokiekin harreman zuzena edukitzen baita.

Gustura al zaude aukerarekin eta lortu duzunarekin?

Oso gustura nago aukeratu dudana bidearekin eta bertan eduki dudana esperientziarekin. Espero dut kurtso hau ongi amaitzea eta datorren urteari begira, taldekide zein irakasleekin berdin joatea eta kurtso amaieran praktika baliagarri zein esperientzi onekoak izatea.

«Lan mundura sartzeko bide egokia da»

JOKIN ETXABE
TOLOSALDEA LH INSTITUTUA



Mekanizazioko erdi mailako heziketa zikloko ikasle ohia eta goi mailako fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko lehenengo mailako ikaslea da Jokin Etxabe. Lemu enpresan ari da, Dual ereduaren bitartez.

Zergatik erabaki zenuen Lanbide Heziketa egitea?

Eskulanak eta makinekin lanean ibiltzea gogoko dudalako.

Zer moduz Dual prestakuntzan? Zail egiten ari al zaizu?

Ondo. Ez zait zail egiten ari. Enpresa munduan eroso sentitzen naiz.

Zer moduz zure enpresan? Nolako izan da hasiera, eta laguntzarik izan al duzu?

Tratu ona jasotzen dut enpresan, eta beti dago laguntzeko norbait. Oso eroso sentiarazten naute.

Zer moduz zure lanpostuan eta lanean? Ikasitakoak balio izan al dizu eta zer gehiago ikasi behar duzu?

Ikasitakoak balio dit eta bertan gehiago ikasten ari naiz, oso ikaskuntza interesgarria jasotzen ari naiz.

Zer esango zenuke Lanbide Heziketari buruz?

Teoria baino gehiago praktika bidez ikasten dela, eta tailerlean makinan erraztasunez eta beldurrik gabe aritzeko bide egokia dela.

Gustura al zaude egindako aukerarekin eta lortu duzunarekin?

Bai, pozik. Pozik ari naiz ikasketak egiten Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan, eta lan mundura sartzeko bide egokia hartu dudala iruditzen zait.

«Peñascalen praktika da nagusi»

IKER MATEOS
PEÑASCAL FUNDAZIOA

Iker Mateos 18 urteko gazte hernaniarra, sukaldaritza eta jatetxe arloko lehenengo maila egiten ari da Peñascal ikastetxean.

Zergatik aukeratu zenuen oinarrizko Lanbide Heziketa?

DBHko laugarren maila bukatu aurretik, argi nuen sukaldaritzako ikasketak egin nahi nituela, horregatik Peñascal Ikastetxea ezagutzera gerturatu nintzen, eta han aurkitu nuen nik nahi nuena.

Zertan nabarmentzen da ikastetxe hau?

Irakasle gutxi dauzkagu kurtso bakoitzean, eta horrek gure harremanak oso gertukoak izatea bermatzen du. Beste ikastetxe batzuetan, nire lagunek teoria ordu gehiago dauzkate, eta Peñascalen, berriz, praktika da nagusi, eta teoria praktika horri lotuta dago.

Zer moduzkoa ari da izaten orain arteko esperientzia?



Nork esango luke, nire lehenengo urtean jada benetako bezeroekin hartu-eman izango nuenik. Bai sukaldean eguneroko menua prestatzen, bai eta jantokian zerbitzua emanez, ari naiz ikasten eguneroko.

Amaitzen duzunean zer egiteko asmoa duzu?

Erdi maila egiteko aukera izango dut, baina oraingoz laneratzea da nire helburua.